

M^a CONCEPCION UGALDE IZETA Bergarako Udaleko Idazkariak

EGIAZTATZEN DU Alkateak, 2020ko ekainaren 25ean emandako dekretu baten bitartez, Tokiko Gobernu Batzarrak bezperan izandako bileran egindako proposamenak onartu zituela, horietako bat ondorengo hau delarik:

“Bergarako udalak udaltzain agenteen lan-poltsa osatzeko deialdia egin zuen 2019 urtean.

Oinarrietan lan-poltsaren iraupenik ez denez jaso eta lan-poltsen funtzionamenduari buruz jasotako araudia aplikagarri delako, udalak onartuta duen araudian jasotakoa aplikatuko da.

Gauzak horrela, honako hau proposatu du idazkaritzako AOTak:

1.- 2019ko urtean udaltzain agenteen aldi baterako premiei erantzuteko Bergarako udalak deituta osatutako lan-poltsaren iraupenari dagokionean honako hau aplikatzea:

3.- LAN-POLTSEN IRAUPENA.

Lan-poltsak indarrean egongo dira deialdi bakoitzean espresuki adierazitako epean.

Lanpostu edo plaza bat betetzeko deialdia ez den deialdi batetik osatutako lan-poltsak urtebeterako izango dira, baina beste lan-poltsa bat osatu arte luzatu ahal izango da epe hori, Tokiko Gobernu Batzarrak espresuki hala erabakiko balu.

2.- Udaltzain agenteen lan-poltsaren hasierako iraupena izatea 2020ko urriaren 20a artekoa.

3.- Lan-poltsaren iraupena luzatzeko udaltzainburuak txostena egingo du eta dagokion batzordean aztertuko da.

Hori ikusita, eta Giza Baliabideen batzordearen proposamenari jarraituz, Tokiko Gobernu Batzarra osatzen duten 6 batzarkideetatik bertaratutako 4rek, aho batez, alkateari ondorengo erabakia hartu dezala proposatzea erabaki dute:

Teknikariak egindako proposamena onartzea.”

Eta horrela jasota gera dadin, luzatzen du egiaztagiri hau, Bergaran, 2020ko uztailaren 13an.

